

Hamarkada luzea

Amerikako Estatu Batuetan (AEB) duela hamar urte lehertu zen finantza krisia eta oso bizkor hedatu zen Europara, baita munduko bazter gehienetara ere. Atzeraldi handiak indarrean daude oraindik, eta horiek hainbat ondorio txertatu dituzte ekonomian eta gizartean, baita politikara eraldaketa ikusgarriak ekarri ere. Mendebaldeko gobernuek egindako krisiaren kudeaketak, hasieratik lehenetsi zuen bankuen eta finantza sistemaren biziraupena. Ordainean gastu sozialaren murrizketa indartsuak pairatu dituzte, batez ere Europa hegoaldean, aurretik globalizazioak bultzatutako eragin larrienak hauspotuta. Horrenbestez, pobrezia eta desberdintasunak bizkortu egin dira nonahi. Aurreko motelaldietan bezala, gizatalde ahulenak austeritate politiken galtzaile nagusiak izan dira oraingoan ere.

Krisiak II. Mundu Gerraren ostean eraikitako oreka politiko globala astindu du, bere eragina kontuan hartu gabe ulertezina baita Trump presidentearen hautaketa, Brexitaren aldeko botoa edo Europako eta Amerikako hainbat herrialdetako eskuin muturraren gorakada. Krisiaren hasierako larritasuna leundu den arren finantza leherketak sistema kapitalistaren izaera bera aldarazi du. Urteotako krisiak herritarren eskubideen galera ardatz duen ekonomia eta industria erlazioen eredu berria sortu du. Bestalde, enpresa erraldoiek, bankuek, inbertsio fondoek eta teknologia talde handiek gero eta botere gehiago eskuratu dute Estatuaren boterea bera zalantzan jartzearaino. Hala erakusten du adibidez zerga politikaren mugak, izan ere, zerga paradisuen hedapena mehatxu larria da ongizate estatuarentzat.



Mikel Zurbano

EHU-KO IRAKASLEA

Krisiak II. Mundu Gerraren ostean eraikitako oreka politiko globala astindu du, bere eragina kontuan hartu gabe ulertezina baita Trump presidentearen hautaketa, Brexitaren aldeko botoa edo Europako eta Amerikako hainbat herrialdetako eskuin muturraren gorakada

Haatik, mendebaldeko herrialdeen egungo eztabaida politikoak finantza araugintzaren garrantzia alboratu du eta gastu publikoaren kontrolaren aldeko borrokari eman dio lehentasuna. Gobernu eta politikari kontserbadoreek krisiaren jatorria arrakastaz berrikustea lortu dute eta azpimarra zerga politikaren kontrol gabezia ipini dute berezko kausa –finantza sekto-

rean izandako kontrol eza– ezkutuan utzita. Honela, krisiaren atzean dagoen merkatu librearen porrota moztaratu egin da eta ongizate estatuaren kostuen eztabaida azaltzen da erdigunean.

Europar Batasunean (EB) diru politika hedakorra austeritate politika gogorrek tartekatu da, hazkunde ekonomikoa sustatu da –ahula bada ere– baina ordainean lan merkatuaren zatiketa eta enpleguaren kalitatean narriadura nabarmena pairatzen ari dira euroguneko herrialde ugari, batez ere gazteak eta emakumeak. Halaber, finantza sistemaren berregituraketak oso bide laburra izan du EBn. AEBetan ez bezala, EBn bankuei emandako laguntzaren zati handi bat ez da berreskuratu –erakundearen estimazioek 200.000 milioi euro baino gehiagoko kopurua aipatzen dute–. Gainera, Estatuak banketxeen azken buruko babesleak izateari uzteko EBk 2012an ezarri zuen helburuak ez du aurrera egin. Ekainean burututako azken gailurrean ez zen urratsik eman Europa mailako Gordailuen Bermerako Fondoa eraikitzeko bidean.

Hondamendiaren hamargarren urteurrenean egonkortasuna urrun dago. Finantza sektoreak munduko ekonomian duen pisua gero eta handiagoa da. *Forbes* aldizkariak urtero egiten duen enpresa handien zerrendako lehen hamarren artean zazpi banketxe daude. Sektoreko araugintzan ezer gutxi aurreratu da eta, beraz, finantzaren esparruko arrisku maila duela hamar urtekoa bezain handia da. Bestalde, egungo munduko zorrak 2007koa aise gainditzen du eta barne produktu gordina baino lau bider garaiagoa da. Interes tasaren igoerarekin eta merkataritzaren protekzionismoan aurrera egiten bada, ondoren agian, duela hamar urteko ez-tanda errepika liteke. ■